


# GREENPEACEN ESKARIAK ETA PROPOSAMENAK URAREN KALITATEA ETA KUDEAKETA HOBETZEKO BIDEAN

**Industriaren isurketen** eragina ekidin eta minimizatu behar da, legediaren bidez isurketa sareen bereizketa, ziklo itxiko sistemak eta ekoizpen sistema garbiak bultzatuz.

**Hirietako isurketek** sortzen duten kutsadurari amaiera eman behar zaio, hirietako hondakin-uren %100 garbitzeko plan integralak martxan jarriaz eta zabortegiak kontrolatuz.

**Nekazaritza eta abeltzaintza hondakinek** beraginiko kutsadura minimizatu behar da, nekazaritza ekologikoa sustatuz, ureztatzeen bideragarritasun ekonomiko eta sozialaren inguruko Estatu mailako ikerketa bat burutuz, legez kanpoko ureztatzeak desagertaraziz eta landetxeen isurketak kontrolatuz.

**Uraren eskariaren kontrolik gabeko hazkundea**, ekidin behar da, hirien eta nekazaritzaren hazkundea dauzkagun ur-errekurtsoen menpe jarriko duten neurriez baliatuz eta lurralde bakoitzeko ezaugarrietara hobekien moldatzen diren laborantza motak eta teknikak aukeratuz.

**Presa eta trasbase** gehiago eraikitzeari uko egin behar diogu, uraren aurreztea bultzatuko duten prezioen gaineko politikak sortu eta hiritar, nekazari, abeltzain nahiz enpresariei zuzenduriko etengabeko hezkuntza eta informazio kanpainak sustatuz.

## ZUK ERE LAGUN DEZAKEZU…

Ura modu arduratsu batean erabiliz zure etxe edo lorategian. Gogoan izan ura ez dela errekurtso infinito bat gurean. Etxean, landan eta industrietan berau aurreztea derrigorrezkoa da ingurumena mantenduko badugu.

Test hau burutuz eta “Greenpeace España c/San Bernardo, 107,  2805 Madrid” zuzenbidera bidaliz, material dokumental eta didaktiko moduan erabiltzeko aukera izan dezagun.

Dagokion udaletxera zuzenduz eta ingurumena babesteko politikak gauzatu ditzan eskatuz. www.greenpeace.es gure web-orrian kontsulta dezakezu “Campañas en defensa del medio ambiente. Una Guía para pasa  a la acción” delakoa.

Energia aurrezteko eta zure hondakinak kudeatzeko moduen inguruko informazioa bilduz, hauek ere ibai bateko uren kalitatean eta kantitatean modu zuzenean eragiten duten faktoreak baitira.

Ingurumenaren defentsan aktiboki parte hartuz, Greenpeaceko bolondres moduan.
Kontakta ezazu gurekin zuzenbide honetan: participa@greenpeace.es

Greenpeaceko bazkide bihurtuz, *902 100 505 telefonora deitu edo www.greenpeace.es zuzenbidean sartu.

GREENPEACE

* Deia ezartzeagatik: 0,0833 euros.
Ohizko tarifa (astelehenetik ostiralera 8etatik 20ak arte): 0,0673 euros/minutuko.
Tarifa murriztua (larunbatetan, igandeetan eta Estatu mailako jai-egunetan egun guztian zehar eta lanegunetan 20etatik hurrengo eguneko 8ak arte): 0,0403 euros/minutuko. BEZ sartu gabe.

# GURE UREN OSASUNA

URA izeneko txostenak gure ur kontinentalek bizi duten egoeraren ikuspegi orokor bat eskaintzen du. Arazo nagusia kalitatea da, ura kutsatua dagoenean ez baita egokia uretako bizitzarako edo kontsumorako. Politika hidraulikoak beti jarri izan ditu errekurtso eta baliabideak infraestrukturetarako, baina ia deus ere ez gure uren kalitatearen egoera tamalgarria arintzeko.

**Dakiguna zera da:**

Gure ubideen **%33** eta lurpeko uren zati bat, inondik inora onargarria ez den kalitate egoera batean daudela, Administrazioak berak onartzen duenez. Hala eta guztiz ere, ez dute arazo hau konpontzeko neurririk hartzen.

**Uraren neurrigabeko eskaintzak errekurtsoen gehiegizko ustiapena eragin du eta kutsadura maila areagotu du.** Sarritan metatzen milaka urte igaro behar izan duten ur fosilak erabiltzen ditugu eta gure erreserben zati handi bat kutsatzen ari gara.

**Espainia da munduan milioi bat biztanleko urtegi gehien duen herrialdea eta hala ere, hornidura arazoak ditu.** Biztanleko eta eguneko ur gehien kontsumitzen duen Europako Estatua gara (265 litro) eta baita beragatik gutxien ordaintzen dutenak ere (0,5 euros/m3).

**TXOSTENA HIRU ZATITAN BANATUA DAGO:**

**URAREN LEGEDIAREN ESPARRUA ESPAINIAN:** Uraren erreferentzia-arteztaraua 2004 urteaz geroztik uraren politika gidatzen duen Europako legea, zeina 2015. urtea baino lehen bere osotasunean bete beharrekoa den. Azken honen ardatza kalitateari eustea da eta herri-lan hidraulikoen ugaritzea gaitzesten du.

**URAREN KUDEAKETA TXARRAREN ONDORIOAK:** Uraren kalitatea murrizten ari diren zeharkako arazoak: garbiketa eza, nekazaritza eredua, kutsadura, eredu energetikoa, turismoa…

**INGURUMENAREN EGOERA ARRO HIDROGRAFIKO DESBERDINETAN:** Estatuan dauden arro guztien analisi kualitatibo bat, non uraren erabilpena eta kutsadura maila deskribatzen diren.

Txosten hau burutu ahal izateko gure erakundeko bolondresen laguntza izan dugu; halaber, ondorengo erakundeetako zenbait adituren: "Nueva Cultura del Agua" Fundazioa, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa, Bartzelonako Unibertsitatea, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa eta Zaragozako Unibertsitatea.

Txostena kontsulatu nahi duena, gure web-orrian sar daiteke: http://www.greenpeace.org/espana/

**Greenpeacek zera proposatzen dizu: ingurune naturalen batera irteera bat egiten duzun hurrengoan, bertako ibai edo errekaren egoera zein den egiaztatzea. Horretarako ibaiaren osasunaren inguruan erabilgarriak izan daitezkeen ezaugarri batzuk emango dizkizugu.**

*Anima zatez, erabili test hau eta goza ezazu ibaietaz!*

ZURE IZENA

POSTA ELEKTRONIKOA DATA ORDUA

IBAIAREN LEKU ETA ZATIA

**Marka ezazu aukera bat bertan topatu duzunaren arabera. Urdina bada, osasuntsu dagoenaren seinale; beltza bada, ibai horren osasuna kezkagarria da.**

**INGURUNEA** - Atal honetan, antropizazio edo gizakiaren eraginaren maila argitu dezakegu.

*Ibaiaren gunetik ikus dezakezu nolabaiteko eraikuntza edo eraikin artifizialik?*

- Ez
- Bai

*Herriren batetik gertu bazaude, nora isurtzen ditu herri horrek hondakin-urak?*

- Urak garbitzeko araztegi bat dauka eta ez da usain desatseginik nabaritzen.
- Ibaira isurtzen ditu garbitu gabe.
- Araztegia badauka, baina usaina nahiko desatsegina da.

*Ezagutzen duzu presa edo urtegirik inguruan?*

- Bai, neurri txikikoa.
- Ez
- Bai, neurri handikoa.

*Ba al dago inguruan landetxerik edo/eta landaturiko eremurik edo behintzat ekintza hauen arrastorik?*

- Ez
- Bai, landaturiko zenbait eremu daude eta animaliak ikusten dira bazkatzen.
- Bai, monolaborantzarako eremuak daude eta/edo negutegiak eta/edo landetxeak, baina animaliarik ez dut ikusten bazkatzen.

**URAREN KALITATEA** - Erabili zure zentzumen guztiak zu zauden ibai edo errekako uraren egoera egiaztatzeko.

Begira ezazu zein kolore duen ibaiak. Uretan txartel plastifikatu bat sartzen baduzu, zein sakoneratan hasten da irakurtzeko ezintasuna?

Egiazta ezazu, lehenik eskuaz eta gero termometro baten laguntzaz, ibaiaren tenperatura.

Zeintzuk dira ibai inguruan identifika ditzazkezun usainak?

Bertako adineko norbaitekin kontsulta ezazu duela 50 urteko egoera gaurkoaren berdina ote zen.

- Bai
- Ez

Erantzuna ezezkoa bada, saia zaitez zergatik aldatu den jakiten eta idatz ezazu hemen:

.................................................................................................................................................................

Edan al daiteke ibai honetako ura?

- Bai
- Ez

Isilik geratuz gero, zer entzuten duzu?

- Ibai baten inguruko berezko soinuak.
- Soinu artifizialak.

**BIODIBERTSITATEA**

Atal honetan bioadierazleen bila gabiltza, hau da, ibaiaren osasuna adierazten diguten espezieen bila.
Marka itzazu x batez ikusi dituzunak edo aztarnaren bat utzi dutenak; arrastoak, gorotza, mudak…

| | | | |
|---|---|---|---|
| apoarmatuak | burruntziak | zumeak | gizakiak sarturiko arrainak |
| larbak | armiarmak | makalak edo burtzuntzak | karramarroak |
| urtxakur edo nutriak | hegaztiak | ur-dilistak | zapatariak |
| sorgin-orratzak | zapo edo igelak | arrain autoktonoak | |

GREENPEACE